

0.- SARRERA

Bai duela 75 urteko udazkena baita duela 50 urtekoa ere, bidankoztarren oroimenean grabatuta geratu ziren, arrazoi bat edo bestearengatik.

Beraz, zenbaki honek ohi baino historia gehiago ekarriko du, ohiko ataletatik aldi batean ahaztuz.

Horrela, gehiago luzatu gabe, harira joango gara.

1.- HISTORIA APURRAK - GATIBUAK EKARTZEN DITUZTE! (1939)

Duela 75 urte, 5 hilabete eskas ziren azkenengo gerra zibila bukatu zenetik. Zehatzagoak izatearren eta azkenengo gerra "partea"-ri hitzez hitz jarraikiz, "*Tropa Nazionalak haien azken helburu militarrek lortu dituzte*". Hori ba, helburu militarrek, baina oraindik bazeuden lortu beharreko beste helburu batzuk.

Gerra amaiturik erregimenak zera erabaki zuen: galtzaileak eta horrenbestez "*erregimenarekiko aurkakoak*" izan behar zirela "*haiek beraiek dinamitatekin suntsitutako estatuaren berreraikitze lanen arduradun*", propaganda frankistak aldarrikatzen zuen moduan.

Hau honela, 1939ko udan, kamioietan sarturik iritsi ziren Erronkarira "*Langile Batailoietai*" sartuak izan ziren lehen gatibuak, udazkenean gatibuen parte bat Bidankozera heldu zelarik, eta ondoren Igarira. Gizon hauek guztiek zeregin bakarra izan zuten, pikotxaz eta palaz baliatuta aipaturiko hiru herriak lotuko zituen errepedearen trazadura hondeatzea.

Bidankoztarrak aspalditik desiratsu zeuden errepede hau noiz eraikiko, izan ere, lehenagotik ere proiektua gauza zedin eskatu zuten, baina arrakastarik gabe, lehentasun gehiago eman baitzioten 1910an Burgi eta Bidankoze lotzen zituen errepedeari. Hainbat eztabaida egon ziren eginen zen lehen errepedea zein izango ote zenez, eta behin erabakia harturik, honen kontrakoak hurrengo kopla asmatu zuten "*Carretera de Vidángoz, carretera mal pensada: los de Txestas a Baraku y los de Burgui a Sagarraga*".

Kasuak kasu, eta gerraren amaiera aurreikusirik, 1939ko martxoaren bukaeran, garai horretan alkate zen Pedro Salvochek (*Salbotx / Calderero*) gobernuari proiektua gauzatu zezan eskatu zion berri. Mugatik gertu zeuden mota

hautetako azpiegiturak Gerrako Ministerioak onartu behar zituen, gutunean proiektuaren garrantzi defentsiboa azpimarratu zuen, izan ere, hiru ibarren komunikazioa ahalbidetzen zuen (Zaraitzu, Bintze eta Eska errekenak) frantziar mugarekiko lerro paralelo bat sortuz, aipatutako muga honetatik 20 kilometro eskasera.

Ziurrenik errepedea eraikitze erabakia hartuta izanen zuten, baina badaezpada ere, alkateak eskaera luzatu zuen. Izanik izan, 1939ko udazken horretan "langile" pila bat iritsi zen Bidankozera, esklabo ibiliko ziren gerrako gatibuak, hauek zaintzeko zeregina egokitu zitzairen hainbat militarrekin batera.

Baina ez alkateak ez bidankoztarrek, inork ez zuen kalkulatu nolakoa izanen zen obra horrek Bidankozeko bizilagunengan suposatuko zuen eragina. Halakoa izan zen, non Bidankozeko biztanleria bikoiztu egin zen (300 biztanle izatetik, 600-700 bat biztanle izatera, iturrien arabera) gerraosteko urte haietan. Igari edo Erronkariko kasuak ez bezala, non gatibuak herriatik

at zeuden barrakoieta egoitza hartu zuten, Bidankozen gatibuak herriko bizilagunekin batera bizi ziren, garai horretan hutsik zeuden hiru etxe hartuz: *Aizagar*, *Laskorna* eta *Bortiri* etxeak. Bitxikeria moduan, gatibuen moralak jaitsi nahi izan balitza bezala, hiru etxeak "*Salsipuedes*" kalean aurkitzen ziren, nolabait erronka jo nahi izan balitza bezala. Agintaritzak bestalde, momentu hartan hutsik aurkitzen ziren beste etxe batzuk hartu zituzten, beraien artean *Iriarte* edota *Matxin* etxeak zeudelarik, ziurrenik beste hainbat egon ziren arren.

Lehenengo hilabetetan gatibuekiko diziplina latza izan zen, zigor gogorrekin,

baita ihes egiten saiatzen zirenen heriotzarekin ere (Bidankozen arrazoi horrengatik 3 hildako suertatu ziren). Kontaktu hutsala izan zuten biztanleriarekin. "*Salsipuedes*"-eko 3 etxe horietan zeuden gatibuen pilaketek, inguruko baldintza klimatiko gogorrenpean egoniko lanaldiek eta elikadura ezin txarragoak (gehienbat militarren ustelkeriak eragina), kontzentrazio esparru hutsa bilakatu zuten hura.

1940an Langileen Batailoia aldatu egin zen, diziplina latza malgutzat joan zen eta bidankoztarrekiko kontaktua handituz joan zen, batzuen artean elkertasuna ere piztu zelarik.

1941eko udan, behin trazadura bukatuta, "Langileen Diziplinako Batailoiak" deiturikoak Bidankozeko herria utzi zuten. Hurrengo urteetan bukatuko zen errepedea, soldaduska egiten ari ziren gazteen lanari esker.

Bi urte horien aztarna ugari geratu ziren Bidankozen, bai gatibuenak baita militarrenak ere. Alde batetik, José Antonio Martínez Beitia (Bilbo, Bizkaia) gatibuaren eta Natividad Ezquer Pérez (*Landarna*) bidankoztarraren ezkontza; bestaldetik, Francisco González Zapico (Ciaño, Asturias) soldaduaren eta Patrocínio Sanz Hualde (*José María*) bidankoztarraren arteko ezkontza.

Gatibu guzti horien oroigarri, *Memoriaren Bideak* elkarteak, 2004tik urtero (ekainean) egiten die omenaldia Igariko mendatean (Argazkian agertzen den monolitoaren parean, Xabier De Zerio bidankoztarrak egina).

Gai honetan sakontzeko ezinbestekoa zaigu Fernando Mendiolaeren eta Edurne Beaumonten "*Esclavos del franquismo en el Pirineo: La carretera Igal-Vidángoz-Roncal*", (Txalaparta, 2006) liburua, Memoriaren Bideak elkartearen "*Desafectos: Esclavos de Franco en el Pirineo*" (Eguzki Bideoak, 2007) dokumentala, eta "*Al enemigo, ni agua*" (EITB, 2011).



2.- HISTORIA APUR GEHIAGO... - BIDANKOZEKO "GORRI" BAT ESPETXERA (1939)

1939ko azaroa. Zazpi hilabete lehenago amaitutako gerra zibilaren ondorioak nabaritzen ari ziren, batez ere galtzaileentzat.

Horien artean, konbentzimenduagatik zela edo bizitzaren kasualitateengatik zela, bidankoztar bat zegoen -orain arte herrian elkarriketatu ditudan zaharrek hari buruz ez zekiten ezertxo ere-. Justino Navarro Aizagar zen, egun *Remendia* deritzon etxean jaioa (lehenago *Matías*, ez dakigu nola zuen izena bera jaio zenean), 1920ko hamarkadaren bigarren zatian Madrilen marrazketa irakasle eta eskultore lanak (lerro hauen azpian, berak egindako Kristo bat) egiten bizimodua ateratzen bizi zena.



Gerrak "eremu gorrian" harrapatu zuen, Errepublikaren menpeko lurraldean, eta alderdi horretan burututako eginkizunengatik - Batailoiko Komisario-, 1939ko azaroaren 19an atxilotu eta galdekatu zuten.

Bere aitortenaren arabera, "Mugimendu Nazional Loriaisua hastean Alderdi Sozialistako kidea zen, 20 egun lehenago afiliatua, inongo sindikatu edo alderdi politikoko kide ez zenez, zerbait gertatu ahalko ote zitzaion beldur baitzen, eta hala, txartela erakutsita bere burua babestu ahalko zuelakoan".

Jarraian aipatzen zuenez, "1936ko irailaren hasieran, marrazketa irakasle izanik, Irakaskuntzako Langileen Sindikatuaren Batailoira aurkeztu zen, zerbait gertatu ahalko ote zitzaion beldur baitzen. Aipatutako sindikatuak batailoi bat

antolatu zuen frontera bidaltzeko eta horren berri izatean, aitopena egiten ari denak [Justinok] uko egin zion, eta orduan, bera eta horri uko egin zioten beste batzuk indarrez hartu, kamioneta batera igoarazi eta El Escorialera eramane ziotuzten. Bertan Informazio Talde batean zerbitzua eman du 1938ko apirila arte, Madrilgo Komisarioratzara aurkezteko agindua jaso baitzuen, baita bete ere. Behin han zela, jakinarazi zioten Armadaren VI Kidegoko Komisarioratzara aurkeztu behar zela komisario izendatu baitzuten, Buletin Ofizialean argitaratutako iragarkian agertu bezala. Hara aurkeztu ondoren, aipatu Armadaren VI Kidegoko Transmisioen Batailoirako izendatu zuten, behin sartuta mutilen buru arituz, inongo operazioetan parte hartu ez duelarik. Armadaren VI Kidegoa desegindakoan, Armadaren III Kidegoan zerbitzua eman zuen gerra amaitu arte".

"Gerra amaitutakoan Aginte Militarren aurrera aurkeztu ez bazen ere, Ospitalearen Barrutiko gerrako presoen Saiklatze Juntaren aurrean egiaztatzeko du, izan ere, dagokion tokira hainbat aldiz bertaratu arren, ezin izan ditu inprimakiak hartu agortu direla esan baitiote, eta berriz ere itzuli beharko du".

Egun berean Madrilgo San Anton espetxera bidali zuten (eskuineko argazkian eraikin hartako gaur egungo egoera ikus daiteke), nolabait "kautekaz espetxealdian" dei dezakeguna. Bere jokabide sozial eta politikoa buruzko txostenak eskatuta, gaia ikertzera bidalitako agenteak ebazten du "hasiera-hasieratik gogo handiz batu zitzaioala gobernu gorriari, eta bere ideiegatik ezkertiarzat jotzen dela. Armada Gorrira sartu zen soldadualdira deitu zutenean, eta Komisario Politiko gradua eskuratu zuen. Horiek horrela izanik ere, bere etxean neurritz jokatu zuen, ez zion inori jazarpenik egin, eta UGTko kide egin zen Mugimendu Nazional Loriaisuaren ondoren".

Beste txosten batean honako hau aipatzen dute: "ideia ezkertiarak ditu, auzoan jokabide egokia du, grina politikorik gabe. Gure Gurutzada Saindua hasitakoan, jarrera pasiboa izan zuen 1936ko urrian garaitutako Armada Gorrira bere borondatez sartu arte. Bertan sarjentu

eta Batailoi bateko komisario politiko aritu zen. Hirian egon ez zenez, ez dago bere jardunaz ezer jakiterik, baina kausa gorriaren zaletzat hartzen da, hortaz, erregimen berriaren aurkari".

1940ko otsailean espetxeratutako agindua berretsi zuten. Ondorengo hilabeteetan Justinok askatasuna lortzeko ahalegin guztiak eta bi egin zituen, eta horretarako honakook aurkeztu: Madrilgo zenbait parrokiatiko hiru apaizen txostenak, bere jokabide moral eta erlijioso egokia egiaztatzen zutenak; Hiriko Poliziaren inspektzioa, jokabide egokia egiaztatzen zuena; Erreketean Tertioko sarjentu baten testigantza, "Mugimendu Nazional Loriaisuaren aldekotzat" zuena; bi enpresa-gizon madrildar, "erregimenaren aldekotzat" jotzen dutena; Falangearen Madrilgo sekzio bateko buruzagia, aipatzen duena Justinok "sentimendu katoliko irmoak eta aurrekari politiko-sozial egokiak ditu, hortaz, Mugimendu Nazional Loriaisuaren aldekotzat jotzen du". Baina ahaleginak antzuak izan ziren.



Azkenean, 20 urteko espetxe zigorra ezarri zioten Matxinadari sostengua emateagatik (paradoxikoa da kolpistek beste batzuei matxinatzea egozte), beste bidankoztar bati, Landa etxeko Vicente Mainz Landari, hiru urte lehenago ezarri zioten zigor bera.

Hurrengo batean kontatuko ditugu Justinoren handik aurrerakoak, izan ere, luze joko du eta bertan toki nahikorik ez dago.

3.- ...ETA HISTORIA APUR GEHIAGO - IRENE PÉREZ GOYENECHEREN ERAILKETA (1964)

60. hamarkadan Afrikako hainbat herrialdek euren independentzia prozesuari ekin zioten, orduan gaztea zen NBE-k sustatutako deskolonizazio prozesuaren ondoren.

Orain Kongoko Errepublika Demokratikoa delakoa (lehenengo garaian Zaire eta Kongo Belgikarra deiturikoa), ez zen salbuespena izan. Kongo Belgikarreko lehenengo hauteskunde independenteak 1959an ospatu ziren eta lehenengo gobernu nazionala 1960ean osatu zen. Baina hainbat eskualdek herrialdetik banatzeko - Belgikako gobernuak lagunduta - egin zituzten saiakerak zirela eta, gobernuak Estatu Batuei laguntza eskatu zien.

Antza ez zuten laguntza nahikoa jaso eta herrialdea kaosean murgildu zen. Bortizkeria herrialde guztiak zabaldu zen Mobutuk estatu-kolpea eman zuen arte, eta boterera iritsi zen arte 1965ean (Estatu Batuen babesarekin).



Ezegonkortasuna sozial eta politiko hori nagusi izan zen bost urte horietan gertatutako historiari buruz arituko gara artikulu honetan. Herrialde hartan, beste askotan bezala, hainbat misiolarik euren lana burutzen zuten. Bidankoze “*Vatikano txikia*” bezala ezagutzen zen (bertan zegoen erlijioso kopurua zela eta) eta horregatik, 60. hamarkadan Kongo Belgikarrean misiolari bidankoztarren bat egongo zela pentsatzea erraza da.

Garai hartan bi misiolari bidankoztar zeuden Kongo-n, ahizpak ziren eta *Diego* etxeokoa hain zuzen ere: Irene (San Marciano-ko sor Maria) eta Guadalupe Perez Goyeneche (Sor Maria Victorica), biak Mariaren Misiolari Frantziskotarrak (“txuriak”).

1964. urteko uztaila ondoren, NBE-ko soldaduek herrialdea utzi zuten, lan bakegilea egin ondoren, baina, hainbat matxinada gume gelditzen ziren oraindik ere. Horietako bat orduko Stanleyville - egungo Kisangani deiturikoa- hiria zen. Azaroaren bukaeran hiriko alde bat (ibaiaren alde batekoa) “aske” zegoen, eta bestea (ibaiaren beste aldekoa), berriz, matxinoen esku. Zonalde matxinatuan, Irene zegoen beste misiolari nafarrekin. Egoeraren larritasuna zela eta, bere Ama Nagusiak aske zegoen aldera pasatzeko gomendatu zion (antza, aske zegoen zonaldean kongregazioak beste etxe bat zuten). Baina Irenek eta beste batzuek, euren lana burutzen zuten etxean gelditzea erabaki zuten ondorioak onartuz.

Eta zoritxarrez, izan zitekeen okerrean gertatu zen. Matxinoek harrapatu zituzten eta kartzela moduan erabili zuten etxe batera eramane zituzten. Bertako sotoan, azaroaren 24ean, 32 lagun zituzten atxilotuta (gehienak europarrak eta batzuek bi egun zeramaten hogeit metro karratu haietan). Eta bertan egon ziren, euren bahitzaileen esku, hurrengo egunean, azaroaren 25ean, etxe berdineko beste gela batean paretaren kontra fusilatu zituzten arte. Pertsona bat bizirik atera zen hilarena eginez eta taldean zeuden hiru erlijioso kongoarrak ere ez zituzten hil. Euren esker daukagu bertan gertatu zenaren berri.

Ondoren, Bidankozen egin zuten hiletaz gain, Azkoien beste bat ospatu zuten (bere anaia zen Santiago, bertan zen erretorea). Ondoren, Iruñeko Artzapezpikuak beste hileta elizkizumak ospatu zituen katedralean euren omenez. 7 urte geroago, Bidankozeko udal ekimen bati esker, Ireneren jaiotetxean, *Diego* etxeokoa aurrealdean, xafla jarri zuten bere oroimenez. Azkenik, 1994ean, bere anaiak, Santiago Pérez Goyenechek, San Marcianoko Sor Mariaren heriotzaren 30. urteurrenean, “*Irene: roncalesa, misionera, mártir*” liburua kaleratu zuen (1995, egileak argitaratua). Bertan, hildako ahizparen biografia kontatu zuen.



Bidankozarte blogean (www.vidangoz.com/gaztelera/bidankozarte/) Ireneren heriotzari buruzko hainbat egunkari-zati irakur daitezke.

4.- OIKONIMIA -MONTXONENA

Iriburua auzora itzuliko gara aukera honetan. Ematen du sartuko garen karririk madarikazioa duela. Zergatik esaten dugu hau? Arrazoi anitzak izan ziren baina etxe guztiak 1950. urterako itxita zeuden. Bere izenak ere ez du laguntzen: *Salsipuedes* [Irten, ahal baduzu, edo gure uskaraz, *Erkinalbatzu*]. Izenak karrikaren garai bateko egoera azaltzen du. *Karrika Nagusitik* sartzen ahal zen baina ez zuen beste irtenbiderik, beste muturrean *Biutze* ugaltza baitzen.

Goazen harira! Artikulu honi dagokion etxea *Montxonena* da. 1950ean "itxi" egin zen. Ez da egia osoa. Etxebizitza izateari utzi zion eta jabe batzuk izan ondoren, oraingo jabeek, *Lengorna* familia, behi ukuilu erabili zuten. Duela gutxi, etxebizitza bihurtu dute berriro.

Zergatik hustu zuten 1950ean? Bertan Valentin Mainz-ek (*Montxonena*) eta Margarita Sanz-ek (*Ornat*) osatutako bikotea bizi zen, eta haiekin batera hiru seme-alaba eta aitona Angel. Aipatutako urtean Argentinarentz abiatu ziren, bertan *Montxonena* etxeko senideak bizi baitziren.

Azken garaiko *Montxonena* etxeko historiak Argentinarekin lotura handia izan du. Aipatutako Valentin Mainz Fuertes joandako azkena izan zen baina bere anai-arreba guztiak (gazteena baitzen) herrialde horretara aurretik joan ziren. Angela 1941ean, Basilisa 1925ean, Donato 1924an eta Mauricio 1920an.

Ezin dugu ziurtatu aurreko belaunaldiko *Montxonena*tarren bat Argentinara joan zen, baina Valentin Mainz Fuertes-en bi osaba, Domingo Venancio eta Modesto Fernando Mainz

Aroza, Elizaren matrikuletatik desagertu ziren, ziur aski, joan zirelako. Lehena 1894an, 29 urte zituelarik, eta bigarrena, berriz, 1903an, 27 urterekin. Ez da inon agertzen Bidankozen ezkondu edo hil zirenik. Kontuan hartu behar dugu herria utzi zuten garaia, haien adina eta beste bidankoztar batzuek, aurretik, Argentina ezagutu zutela. Beraz, ez da astakeria pentsatzea haiek ere emigratu zutela eta *Montxonena*ko hurrengo belaunaldiak bide bera egiteko hazia izan zirela.



Honaino etxearen historia laburra. Etxearen izenari dagokionez, zer esan daiteke? *Montxonena*, bere garaian *Montzonena* eta lehenago, beharbada, *Monxonena* edo *Monzonena* izan zen. Hau da, *Monzon+ena*, "*Monzonen etxea*". Etxearen azkeneko belaunaldiak, hala ere, Mainz izan dira, eta aurrekoak auskalo. Beraz, noiz izan zen Monzon bat etxe honetan?

Arestian aipatu dugunez, azkeneko jabeak Mainz Fuertes abizenak zituen. Etxekoa bere aita zen, Angel Mainz Aroza, eta aurreko belaunaldian, berriz, etxekoa Angelen ama zen, Juana Teresa Aroza Mendigacha. Honen aita etxekoa zen, Pedro Miguel Aroza Garate, 1808an sortu zena. Atzera 200 urte jo dugu eta oraindik Monzonen arrastorik ez dugu aurkitu.

Sartzen garen denboraldian alabek 3 aldiz jaso zuten etxearen jabetza eta hori dela eta, etxearen abizena ere, hiru aldiz aldatu zen. Pedro Miguel Aroza Garateren ama Juana Pascuala Garate Baynes zen eta hau Clara Lorenza Baynes Monzonen alaba eta Maria Josefa Monzon Urzainquiren biloba zen. Hortxe daukagu Monzon! Etxeari, hala ere, izena ez zetorkion Maria Josefarengandik, bere aitarengandik baizik: Miguel Monzon. Ez dakigu (1701. urtetik atzera ez baitugu erregistrorik) bera ote zen Bidankozeko lehenengo Monzon edo aurreko belaunaldikoak gure herrira heldu ziren.

Montxonena etxeari buruzko aipamen interesgarria: Atearen arkuak goialdean duen harriak (artikulu honetan agertzen den irudian) errege mairuaren burua dauka landua. Erronkari bailarako armarrria da baina Bidankozen, *Ferniando* etxearekin batera, ikur hau duen etxe bakarra da.

Azken aipamen bat: etxe honen ondorengo bat, Mauricio Mainz Sanz, gaur egun Argentinan *Espainiako Ohorezko Kontsulordea* da. San Nicolas de los Arroyosen daukan bulegoan Bidankozeko argazki handi bat dauka.

5.- BUKAERA

Eta horrela bukatzen da zenbaki ezohiko hau, historiak beterik egon dena. Gabonetan, gehiago: mandoen balioa; Duela mende bateko negu gorria; Txurrusta; Pexenena etxea; 1915ko adinkideak...

Gogorazi nahi dizuet zenbaki honekin batera Bidankozeri buruzko prentsa artikuluen 4.

bilduma argitaratu egin da, oraingo honetan atzerantzako jautzia ematen, 1810-1900 denboraldia bilduz, eta "*Heraldo de Vidángoz*" izena eramaten duena. Honetaz gain, xeietan emango dudun hitzaldiari buruzko informazioa jaso ahal izango da, "*Bidankoze beltza*" izenburuduna, herrian gertatutako hainbat "gertaera ilun"

aztertzen dituen. Zuzenean niri erostean gain, Danielna tabernan eskuragarri egongo dira ere.

Eta, orain bai, amaitu da zenbaki hau. Ea negua ongi pasatzen dugun eta urte amaieran ikusiko dugu elkar berriz.

Agur bero bat.

LAGUNTZAILE:

AYUNTAMIENTO
DE LA VILLA DE
VIDANGOZ



BIDANKOZEKO
AIZA BULGUA